

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

Agindua, 2023ko irailaren 4koa, Lurralde plangintza, etxebizitza eta garraio sailaren iragarkia, Araba Erdialdeko eremu funtzionalaren lurralde plan partzialari hasierako onarpena ematen dion sailburuaren aginduarena

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko irailaren 4ko Aginduren bidez, hasierako onarpena eman zaio Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialari. Hona hemen haren xedapen-zatia:

Lehenengoa. Hasierako onespina ematea Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialari.

Bigarrena. Aipatu plana jendaurrean jartzea, partikularrek eta elkarte interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten, berrogeita bost egun balioduneko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Aldi berean, lurralde-administrazio publiko interesdun guztiei entzuteko aldi bat irekiko zaie, berrogeita bost egun balioduneko epe horretan, egoki iritzitako oharrak eta iradokizunak egin ahal izan ditzaten.

Laugarrena. Halaber, aldi berean, dokumentua eraginpeko administrazio publikoen eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduran aldezturik kontsulta egin zaie interesdunen kontsulta-izapidetzera aurkezten da, berrogeita bost egun balioduneko epe horretan.

Bosgarrena. Epe horietan, plana jendearen eskura egongo da, aztertu ahal izan dezan, bai Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/araba-erdialdeko-lurralde-plan-partzialaren-berrikuspina/web01-a2lurral/eu/>), «Hasierako onarpena 2023» fitxan), bai Irekia komunikazio-kanalean (<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/>).

Seigarrena. Iragarkiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetako aldizkari ofizialetan eta euskal autonomia erkideagoan gehien saltzen diren egunkarietako bitan argitaratuko dira.

Agindu honen aurka ezin da errekurtsorik jarri, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala onesteko prozeduraren baitako izapide bat baita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 4a

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ